



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO ABENDUAREN 11N  
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre

**Zinegotziak:** Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Irene Gartzia Palacios eta Josune Estella Arranz.

**1.- 2018KO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA.**

Espediente zenb.: ID.06/2018-0564

**IKUSIRIK**

Udalbatzak 2017ko abenduaren 19an egindako ezohiko bilkuran Usurbilgo Udaleko 2018ko Langileen Plantila eta Lanpostuen Zerrenda onartu zituen. Erreklamaziorik ez zen egon eta 2018ko otsailaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren behin betikoz onartuta geratuz.

**KONTUAN HARTURIK**

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategineko 70. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. eta 24. artikuluek diotena.

Estatuko 2018. urteko aurrekontu orokorreari buruzko uzailaren 3ko 6/2018 legearen 19. artikulua.

Alkatetzaren 2005/1064 zenbakidun Dekretuan Enplegu Publikoaren eskaintza onartzeko ezarritako eskuduntzen egikaritzan, Tokiko Gobernu Batzarrari eginiko lagapena.

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**ERABAKIA**

**LEHENENGOA.-** 2018ko Enplegu Publikorako Eskaintza onartzea, akordio honekin batera I. Eranskin gisa doan dokumentuan azaltzen diren plazak jasotzen dituena.

**BIGARRENGOA.-** 2018ko Enplegu Publikorako Eskaintza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean



Usurbilgo Udala

argitaratzea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian laburpen bat argitaratzea.

## **I. ERANSKINA**

### **2018KO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA**

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikuluan ezarritakoari dagokionez, hutsik dauden plazak 2018ko otsailaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko 2018 urteko Lanpostuen Zerrendan agertzen direnak dira.

2018 urteko Enplegu Publikorako Eskaintzan jasotako lanpostuak honakoak dira:

Sailkapen taldea	Eskala	Azpieskala	Izena	Hizkuntza eskakizuna	Plaza kopurua	Txanda	Lanaldia
C2	Administrazio Orokorra	Laguntzaileak	Herritarren arretarako Administrari laguntzailea	C1. derrigorrezkoa	1	irekia	100%
E	Administrazio Berezia	Zerbitzu bereziak	Operario 4	B1. derrigorrezkoa	2	irekia	100%

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**